# KOSTU EGITURA

- **Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?**

## Gogoratu:

- Edozein proiektu aurrera ateratzeak hainbat gastu egitea eskatzen duela, eta gure enpresa gastu horiei aurre egiteko gai izan behar dela.
- Kostu-egiturek ondorengo ezaugarriak izan ditzakete:
  - Kostu finkoak
  - Kostu aldagarriak
  - Eskala-ekonomiak
  - Hedapen-ekonomiak
- Negozio-eredu batzuek prezio baxuak dituztelako funtziona dezakete; beste batzuek, berriz, duten kalitate-maila handiagatik.

## Ez ahaztu batzorde ebaluatzaileak baloratuko duena:

- Argi eta garbi zehaztea proiektuaren kostu guztiak, zuzenak zein zeharkakoak, finkoak eta aldagarriak, ekonomikoak edo bestelakoak (esaterako, ingurumen-kostuak edo sozialak).
- Zuen proiektuak hasieran inbertsio handia egin beharra eskatzen badu, beharrezkoa izango da inbertsio horien guztizko kostua zenbatestea.

## IOIKANen kasu praktikoa:

Ion, Iker eta Aneren kasuan, bere kostuak minimizatzen saiatu dira.

- Kostu finkoak: oraingoz, kostu finko bakarra dute, webgunearen hostinga; izan ere, Ionen aitak utzitako garaje batean lan egiten dute, eta Ikerrek bere ekipo informatikoa erabiltzen du.
- Kostu aldagarriak: Ionek erabiltzen dituen materialak eta margoak eta erosi behar dituzten oholak, eta horiek duten salmenta-bolumenaren araberakoak dira.



BULTZATZAILEA
BABESLEAK
ENPRESA AHOLKULARIAK
KOLABORATZAILEAK